



**El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

Aitana Agirre

2024.6.7 Donostia

Kanpainaren azken egunean gaude, azken txanpan, eta zuen konfiantza eskatzera etorri gara. Azken esfortzu bat behar dugu azken urteetan Europar egin diren hauteskunde garrantzitsuenetarako, asko dago jokoan.

Herriz herri ibili gara, sektore desberdinetako eragileekin batu gara eta proposamen zehatzak garatu ditugu Euskadi Europara eramateko. EAJ da kanpaina honetan Euskadi Europar defendatzeko proposamen zehatzak egin dituen alderdi bakarra.

Gure baserriar edo arrantzaleentzat, gure industriarentzat, gure eredu sozialarentzat, gazteentzat, gure kulturarentzat edo euskararentzat, sektoreekin kontrastatutako proposamen errealistak ditugu, Euskadiren interesak Bruselan eta Estrasburgon defendatzeko. Euskadik Europar Batasunean dituen interesak defendatzeko 160 neurri errealista eta kontrastatu ditugu.

Gu beti izan gara koherenteak. Ez dugu komeni zaigunaren arabera aldatzen gure posizioa. Beti defendatu dugu bakea. Beti defendatu ditugu giza eskubideak. Beti defendatu dugu Euskadi. Europar lortutako emaitzak eta urte luzetan egindako lana dugu horren erakusle.

Gure sistema soziala bere praktika onen eredu bezala aitortu digu Europak; gure berrindustrializazio prozesua eredu da; gure kooperatiben funtzionamendua ikasi egiten da Batasun osoan zehar. Nahiz eta asko dugun ikasteko, gure txikitasunean erreferente gara ongizate gizarteari dagokionean, gizartearen inplikazio eta auzolanari eta Alderdiak azken 40 urte hauetan erabaki estrategikoetan asmatu izanari esker.

Europar gure ahotsa errespetatzen bada PNVk bertan egindako lan gogor eta onarengatik da. Honek horrela izaten jarrai dezan, orain arte bezala jarraituko dugu euskaldunon eta Euskadiren alde lanean. Bide horretan jarraituko dugu.

Europar entzunak izaten jarraitu behar dugu. Baina horretarako, beharrezkoa da igandean jendea bozkatzera joatea eta EAJk ordezkariak lortzea Europar Batasuneko Parlamentuan.